cyber zaintza | BASQUE CYBERSECURITY AGENCY

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ZUZENBIDE PRIBATUKO ERAKUNDE PUBLIKOA

ENTE PÚBLICO DE DERECHO PRIVADO

EUSKAL ZIBERSEGURTASUN AGENTZIA

AGENCIA VASCA DE CIBERSEGURIDAD

2024ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion urteko kontuak eta kudeaketa-txostena.

Cuentas Anuales e Informe de Gestión correspondientes al ejercicio anual terminado el 31 de diciembre de 2024

AURKIBIDEA / INDICE

	Orrialdea / Página
EGOERA-BALANTZEA / BALANCE DE SITUACIÓN	*3*
GALDU-IRABAZIEN KONTUA / CUENTA DE PÉRDIDAS Y GANANCIAS	*4*
ONDARE GARBIAREN ALDAKETEN EGOERA-ORRIA / ESTADO DE CAMBIOS EN EL PATRIMONIO NETO	*5*
DIRU-FLUXUEN EGOERA-ORRIA / ESTADO DE FLUJOS DE EFECTIVO	*6*
URTEKO KONTUEN MEMORIA / MEMORIA DE LAS CUENTAS ANUALES	*7-36*

cyber zaintza | BASQUE CYBERSECURITY AGENCY

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EUSKAL ZIBERSEGURTASUN AGENTZIA
2023ko eta 2024ko abenduaren 31ko egoera-balantzeak (Eurotan adierazita)

AGENCIA VASCA DE CIBERSEGURIDAD
Balances de situación al 31 de diciembre de 2023 y 2024 (Expresadas en euros)

AKTIBOA ACTIVO	Oharrak Notas	2024	2023
AKTIBO EZ-KORRIENTEA **ACTIVO NO CORRIENTE**		2.597	2.917
Epe-luzeko finantza-inbertsioak **Inversiones financieras a largo plazo**		2.597	2.917
AKTIBO KORRIENTEA **ACTIVO CORRIENTE**		2.289.391	293.639
Merkataritza zordunak eta kobratzeko bestelako kontuak **Deudores comerciales y otras cuentas a cobrar**		7.514	2.500
Pertsonala Personal		7.514	2.500
Diruzaintza eta bestelako aktibo likido baliokideak **Efectivo y otros activos líquidos equivalentes**		2.281.877	291.139
Diruzaintza Tesorería		2.281.877	291.139
AKTIBOA GUZTIRA/ TOTAL ACTIVO		**2.291.988**	**296.566**
PASIBO KORRIENTEA **PASIVO CORRIENTE**		2.291.988	296.566
Merkataritza hartzekodunak eta ordaintzeko bestelako kontuak **Acreedores comerciales y otras cuentas a pagar**		**2.291.988**	**296.556**
Hornitzaileak Proveedores		54	17.409
Hornitzaileak, elkartutako enpresak Proveedores empresas asociadas	9	282.288	31.325
Hainbat hartzekodun Acreedores varios		120.353	85.816
Ordaintzeko dauden ordainsariak Remuneraciones pendientes de pago		1.351	1.991
Administrazio Publikoekin bestelako zorrak Otras deudas con administraciones Públicas	6	1.887.942	160.015
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA/ TOTAL PATRIMONIO NETO Y PASIVO		**2.291.988**	**296.556**

cyber zaintza | BASQUE CYBERSECURITY AGENCY

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EUSKAL ZIBERSEGURTASUN AGENTZIA

2023ko eta 2024ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiei dagozkien galdu-irabazien kontuak

(Eurotan adierazita)

AGENCIA VASCA DE CIBERSEGURIDAD

Cuentas de pérdidas y ganancias correspondientes a los ejercicios finalizados el 31 de diciembre de 2023 y 2024

(Expresadas en euros)

	Oharrak Notas	2024	2023
Ustiapeneko bestelako sarrerak **Otros ingresos de explotación**		2.372.661	707.815
Ekitaldiko emeitzara egotzitako ustiapeneko diru-laguntzak Subvenciones de explotación incorporadas al resultado del ejercicio		2.372.661	707.815
Pertsonal gastuak **Gastos de personal**		- 618.845	- 100.309
Soldatak, lansariak eta antzekoak Sueldos, salarios y asimilados	**10**	- 494.272	- 79.381
Karga sozialak Cargas sociales	**4.9 y 8.1**	- 124.573	- 20.928
Ustiapeneko bestelako gastuak **Otros gastos de explotación**		- 1.759.397	-607.311
Kanpoko serbitzuak Servicios exteriores		- 1.759.397	- 607.311
Bestelako emaitzak Otros resultados			
USTIAPENEKO EMAITZA **RESULTADO DE EXPLOTACIÓN**		- 5.531	- 195
Gastos financieros Finantza gastuak			- 45
Ingresos financieros Finantza sarrerak		5.794	92
Kanbio-diferentziak Diferencias de cambio		- 263	- 242
EMAITZA FINANTZARIOA **RESULTADO FINANCIERO**		5.531	195
ZERGA AURREKO EMAITZA **RESULTADO ANTES DE IMPUESTOS**		-	-
Irabazien gaineko zerga **Impuesto sobre beneficios**	**7**		
EKITALDIKO EMAITZA **RESULTADO DEL EJERCICIO**		-	-

EUSKAL ZIBERSEGURTASUN AGENTZIA

AGENCIA VASCA DE CIBERSEGURIDAD

2023ko eta 2024ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiei dagozkien ondare garbiaren aldaketen egoera-orriak

Estados de cambios en el patrimonio neto correspondientes a los ejercicios finalizados el 31 de diciembre de 2023 y 2024

A) Jasotako diru-sarrera eta gastuen egoera-orria (eurotan adierazita)

A) Estado de ingresos y gastos reconocidos (expresado en euros)

	Oharrak / Notas	2024	2023
Galedu-irabazien kontuaren emaitza Resultado de la cuenta de pérdidas y ganancias		0	0
Ondare garbian zuzenean egotzitako diru sarrerak eta gastuak Ingresos y gastos imputados directamente en el patrimonio neto		0	0
Aitortutako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak **Subvenciones donaciones y legados reconocidas**			
Galedu-irabazien kontura egindako transferentziak Transferencias a la cuenta de pérdidas y ganancias		0	0
Aitortutako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak Subvenciones donaciones y legados reconocidas		0	0
Jasotako diru-sarrerak eta gastuak, guztira **Total ingresos y gastos reconocidos**		0	0

B) Ondare garbiaren aldaketen egoera-orria, guztira (eurotan adierazita)

B) Estado total de cambios en el patrimonio neto (Expresado en euros)

	Fondo soziala / Fondo social	Aurreko ekitaldietako emaitzak / Resultado de ejercicios anteriores	Ekitaldiko emaitza / Resultado del ejercicio	Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak / Subvenciones, donaciones y legados recibidos	Guztira / Total
Total ingresos y gastos reconocidos					**0**
Amaierako saldoa (2023. urtea) **Saldo final año 2023**	**0**	**0**	**0**	**0**	**0**
Amaierako saldoa (2024. urtea) **Saldo final año 2024**	**0**	**0**	**0**	**0**	**0**

cyber zaintza | BASQUE CYBERSECURITY AGENCY

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EUSKAL ZIBERSEGURTASUN AGENTZIA

2023ko eta 2024ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiei dagozkien diru-fluxuen egoera-orriak.

AGENCIA VASCA DE CIBERSEGURIDAD

Estados de flujos de efectivo correspondientes a los ejercicios finalizados el 31 de diciembre de 2023 y 2024

	Oharrak / Notas	2024	2023
USTIAKETA JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK / FLUJOS DE EFECTIVO DE LAS ACTIVIDADES DE EXPLOTACIÓN			
Ekitaldiaren emaitza zerga aurretik / Resultado del ejercicio antes de impuestos			
Emaitzaren doiketak / Ajustes del resultado		**-5.531**	**195**
Sarrera finantzarioak / Ingresos financieros		-5.794	-92
Finantza-gastuak / Gastos financieros			45
Beste sarrera eta gastu batzuk / Otros ingresos y gastos			
Kanbio-diferentziak / Diferencias de cambio		263	242
Aldaketak kapital arruntean / Cambios en el capital corriente		**1.990.418**	**294.056**
Zordunak eta kobratzeko beste kontu batzuk / Deudores y otras cuentas a cobrar		-5.014	-2.500
Beste aktibo arrunt batzuk / Otros activos corrientes			
Hartzekodunak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk / Acreedores y otras cuentas a pagar		1.995.432	296.556
Ustiaketa jardueren eskudiruzko beste fluxu batzuk / Otros flujos de efectivo de las actividades de explotación		**5.794**	**47**
Interesen ordainketak / Pago de intereses			-45
Interesen kobrantzak / Cobros de intereses		5.794	92
Irabazien gaineko zergaren kobrantzak (ordainketak) / Cobros (pagos) por impuesto sobre beneficios			
Ustiaketa jardueren eskudiruzko fluxuak / Flujos de efectivo de las actividades de explotación		**1.990.681**	**294.298**
INBERTSIO JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK / FLUJOS DE EFECTIVO DE LAS ACTIVIDADES DE INVERSIÓN			
Inbertsioengatiko ordainketak / Pagos por inversiones		**-2.180**	**-2.917**
Ibilgetu ez-materiala / Inmovilizado intangible			
Ibilgetu materiala eta higiezinetako inbertsioak/ Inmovilizado material e inversiones inmobiliarias			
Bestelako aktibo finantzarioak/ Otros activos financieros		-2.180	-2.917
Desinbertsioen kobrantzak/ Cobros por desinversiones		**2.500**	
Bestelako aktibo finantzarioak/ Otros activos financieros		2.500	
Inbertsio jardueren eskudiruzko fluxuak / Flujos de efectivo de las actividades de inversión		320	-2.917
Finantzaketa jardueren eskudiruzko fluxuak / Flujos de efectivo de las actividades de financiación		0	0
Ondare eragitengatiko kobrantzak eta ordainketak / Cobros y pagos por operaciones de patrimonio			
Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak / Subvenciones, donaciones y legados recibidos			
KANBIO-TASEN ALDAKETEN ERAGINA / EFECTO DE LAS VARIACIONES DE LOS TIPOS DE CAMBIO		-263	-242
ESKUDIRUAREN EDO BALIOKIDEEN IGOERA/MURRIZKETA GARBIA / AUMENTO / DISMINUCIÓN NETA DEL EFECTIVO O EQUIVALENTES		**1.990.738**	**291.139**
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi hasieran / Efectivo o equivalentes al comienzo del ejercicio		291.139	
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi amaieran / Efectivo o equivalentes al final del ejercicio		2.281.877	291.139

EUSKAL ZIBERSEGURTASUN AGENTZIA

2024ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiari dagokion memoria (eurotan adierazia)

l. Erakundearen jarduera

Ekainaren 29ko 7/2023 Legeak Euskal Zibersegurtasun Agentzia sortu eta arautzen du (hemendik aurrera Cyberzaintza deituko diogu), euskal sektore publikoan zibersegurtasuna sustatzeaz eta koordinatzeaz arduratuko den erakunde publiko gisa – Euskal Sektore Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2022 Legean mugatuta –, sektore horren eskumeneko informazio-sistemen segurtasunaren eta sare elektronikoen segurtasunaren esparruan, eta Euskal Autonomia Erkidegoari, haren administrazio publikoari, herritarrei eta enpresa-sareari zibersegurtasunaren eta garapen digital seguruaren arloko gaikuntza lagundu eta bultzatzeko.

Euskal Zibersegurtasun Agentzia Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko zuzenbide pribatuko erakunde publiko gisa sortzen da, nortasun juridiko propioa duena eta bere jarduera ordenamendu juridiko pribatura egokitzen duena. Bere helburuak lortzeko jardute-gaitasun osoa du, autonomia organiko eta funtzionala du, eta segurtasunaren arloan eskumena duen sailera atxikita dago Segurtasun Sailordetzako titularraren bidez, Euskal Zibersegurtasun Agentzia sortzeko ekainaren 29ko 7/2023 Legean aurreikusitakoaren arabera.

7/2023 Legearen Xedapen gehigarriak ezartzen du SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentzia zuzenbide pribatuko erakunde publikoak, Basque Cybersecurity Centre-Zibersegurtasunaren Euskal

AGENCIA VASCA DE CIBERSEGURIDAD

Memoria correspondiente al ejercicio finalizado el 31 de diciembre de 2024 (Expresada en euros)

l. Actividad del Ente

La Ley 7/2023 de 29 de junio crea y regula la Agencia Vasca de Ciberseguridad (a partir de ahora citada como Cyberzaintza) como organismo público encargado de promover y coordinar la ciberseguridad en el sector público vasco delimitado en la Ley 3/2022, de 12 de mayo, del Sector Público Vasco, en el ámbito de la seguridad de los sistemas de información y de las redes electrónicas de competencia de dicho sector, y apoyar e impulsar la capacitación en ciberseguridad y el desarrollo digital seguro de la Comunidad Autónoma Vasca, de su Administración pública, de su ciudadanía y de su tejido empresarial.

La Agencia Vasca de Ciberseguridad se crea como un ente público de derecho privado del sector público de la Comunidad Autónoma Vasca, con personalidad jurídica propia, que ajusta su actividad al ordenamiento jurídico privado, con plena capacidad de obrar para el cumplimiento de sus fines y con autonomía orgánica y funcional, adscrita al departamento competente en materia de seguridad a través de la persona titular de la Viceconsejería de Seguridad, conforme a lo previsto en la Ley 7/2023, de 29 de junio, de creación de la Agencia Vasca de Ciberseguridad.

La disposición adicional de Ley 7/2023 establece que el ente público de derecho privado SPRI-Agencia Vasca de Desarrollo Empresarial, en cuanto responsable del Basque Cybersecurity

Zentroaren arduradun legez, zentroari atxikitako aktibo material, langile eta baliabide batzuk lagako dizkiola Euskal Zibersegurtasun Agentziari, Cyberzaintzak bere eginkizunak bete ditzan; bai eta Euskal Zibersegurtasun Agentziaren subrogazioa ere SPRIk sinatutako kontratu eta hitzarmenetan

Centre-Centro Vasco de Ciberseguridad, cede a la Agencia Vasca de Ciberseguridad, para el cumplimiento de sus funciones, determinados activos materiales, el personal y los recursos asignados al centro; así como la subrogación de la Agencia Vasca de Ciberseguridad en los contratos y convenios suscritos por la SPRI

2023ko irailaren 12an, Lehen Lehendakariorde eta Segurtasuneko Sailburuaren Agindua argitaratzen da, Euskal Zibersegurtasun Agentzia Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoaren jardueren hasiera zehazten duena. Erakundea 2023ko azaroaren 1ean subrogatu zen lehendik zeuden harreman juridikoetan, eta Basque CyberSecurity Centretik datozen langileen lan-kontratuen subrogazioa bi txandatan egin zen: lehenengo pertsona Cyberzaintzan hasi zen lanean 2023ko irailaren 15ean, eta gainerako langileak 2023ko azaroaren 1ean.

Con fecha de 12 de septiembre de 2023, se publica la Orden, del Vicelehendakari Primero y Consejero de Seguridad, por la que se determina el inicio de actividades del Ente Público de Derecho Privado Agencia Vasca de Ciberseguridad. La subrogación del Ente en las relaciones jurídicas preexistentes se realiza con fecha 1 de noviembre del 2023 y la subrogación de los contratos laborales del personal proveniente de Basque CyberSecurity Centre se realiza en dos tandas: la primera persona se incorpora en Cyberzaintza con fecha de 15 de septiembre de 2023 y el resto de personal con fecha 1 de noviembre del 2023.

Irailaren 19an onartu zen 135/2023 Dekretua, Zibersegurtasunaren Euskal Agentziako zuzendari nagusia izendatzen duena.

Con fecha 19 de septiembre se aprueba el Decreto 135/2023 por el que se nombra Director General de la Agencia Vasca de Ciberseguridad.

34/2024 Dekretuan, martxoaren 19koa, Euskal Zibersegurtasun Agentziaren estatutuak onartzen dira.

Por Decreto 34/2024, de 19 de marzo, se aprueban los Estatutos de la Agencia Vasca de Ciberseguridad.

Araba Parke Teknologikoan egiten du jarduera Erakundeak.Cyberzaintzaren helburua euskal sektore publikoan zibersegurtasuna sustatzea eta koordinatzea da, sektore horren eskumeneko informazio-sistemen segurtasunaren eta sare elektronikoen segurtasunaren esparruan; eta Euskal Autonomia Erkidegoa, bertako Administrazio publikoa, herritarrak eta enpresa-sarea zibersegurtasunean eta garapen digital seguruan treba daitezen babestea eta bultzatzea.

El Ente presta su actividad en el Parque Tecnológico de Álava.

Cyberzaintza tiene como objeto promover y coordinar la ciberseguridad en el sector público vasco, en el ámbito de la seguridad de los sistemas de información y de las redes electrónicas de competencia de dicho sector, y apoyar e impulsar la capacitación en ciberseguridad y el desarrollo digital seguro de la Comunidad Autónoma Vasca, de su Administración pública, de su ciudadanía y de su tejido empresarial.

Agentziaren xedea betetzeko, Cyberzaintzari honako eginkizun hauek dagozkio:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publiko guztientzat zibersegurtasun-estrategia bat sustatzea, eta administrazio horiek zibersegurtasunarekin lerroka daitezen bultzatzea eta koordinatzea.

b) Euskal sektore publikoarentzat gomendagarriak diren segurtasun-estandar, -gidalerro eta -arau teknikoen esparrua bultzatzea.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak zibersegurtasunaren arloan izapidetutako arau-xedapenak egiteko prozeduretan nahitaezko txostenak egitea.

d) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren esparruan hedatutako zibersegurtasun-gaietako politika publikoen urteko ebaluazioak egitea.

e) Euskal Autonomia Erkidegoan zibersegurtasun-gertakariei aurrea hartzea, antzematea eta haiei erantzutea. Horretarako, irizpideak finkatuko dira, eta babes-neurri egokiak sustatuko dira zibermehatxuei eta berezko arriskuei aurre egiteko azpiegitura teknologikoetan, informazio-sistemetan, informazioaren eta komunikazioaren teknologien zerbitzuetan eta horiek tratatzen duten informazioaren eremuan. Hori guztia, aplikatu beharreko eskumen-esparrua errespetatuta.

f) Euskal Autonomia Erkidegoko zerbitzu publikoak edo funtsezkoak kudeatzen dituzten entitateei buruzko datu egokiak biltzea informazioaren segurtasun-egoerari dagokionez, arreta berezia jarrita zerbitzu publikoen

Para el cumplimiento de su objeto, corresponden a Cyberzaintza las siguientes funciones:

a) Promover una estrategia de ciberseguridad para el conjunto de las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma Vasca, y potenciar y coordinar el alineamiento en la ciberseguridad en dicho conjunto.

b) Impulsar un marco de estándares, directrices y normas técnicas de seguridad recomendables para el sector público vasco.

c) Informar, con carácter preceptivo, en los procedimientos de elaboración de disposiciones normativas tramitadas por la Administración de la Comunidad Autónoma Vasca en materia de ciberseguridad.

d) Realizar evaluaciones anuales de las políticas públicas en materia de ciberseguridad desplegadas en el ámbito del sector público vasco.

e) Prevenir y detectar incidentes de ciberseguridad en la Comunidad Autónoma Vasca y responder a ellos, estableciendo criterios y promoviendo el despliegue de las medidas de protección pertinentes ante las ciberamenazas y los riesgos inherentes sobre las infraestructuras tecnológicas, los sistemas de información, los servicios de las tecnologías de la información y la comunicación, y la información que estos tratan, todo ello con respeto del marco competencial aplicable.

f) Recoger los datos pertinentes de las entidades que gestionan servicios públicos o esenciales en la Comunidad Autónoma Vasca en relación con el estado de la seguridad de la información, prestando especial atención a los sistemas

funtzionamendurako edo pertsonen segurtasunerako kritikoak diren sistemetan, Eusko Jaurlaritzari eta zerbitzu kritiko eta funtsezko horiek ematen esku hartzen duten lurraldeko administrazio publikoei haren berri emateko, eta neurri egokiak proposatzeko zibersegurtasunaren inguruko arriskuen kudeaketa eginez.

considerados como críticos para el funcionamiento de los servicios públicos o la seguridad de las personas, con vistas a informar al Gobierno Vasco, así como a las administraciones públicas del territorio que intervengan en la prestación de dichos servicios críticos y esenciales, y proponer las medidas adecuadas llevando a cabo la gestión de riesgos en materia de ciberseguridad.

g) Larrialdiei erantzuteko taldearen (CERT) eginkizunak betetzea Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenen barruan. Mugaz gaindiko fenomeno bat denez, beste lurraldeetako administrazio eta agentziekin elkarlana beharrezkoa da zibereraso bat gertatuz gero kalteak eta berreskuratze-denbora minimizatzeko.

g) Ejercer las funciones del equipo de respuesta a emergencias (CERT) dentro de las competencias de la Comunidad Autónoma Vasca. Dado que se trata de un fenómeno transfronterizo, es necesario colaborar con las administraciones y agencias de otros territorios con el objetivo de minimizar los daños y el tiempo de recuperación en caso de ciberataque.

h) Bere jardun-eremuan diharduten zibersegurtasuneko intzidentziei erantzuteko taldeak (CSIRT) eta larrialdiei erantzuteko taldeak edo entitate baliokideak koordinatzea, indarrean dagoen legeriarekin bat etorriz, eta Estatuko eta nazioarteko beste CSIRT batzuekin lankidetzan aritzeko ereduak ezarriz. Era berean, Agentziak alerta goiztiarreko eginkizunak eta segurtasun-mehatxuei, -ahultasunei, -erasoei eta -intzidentziei erantzuteko laguntza-eginkizunak beteko ditu euskal sektore publikoaren esparruan.

h) Coordinar los equipos de respuesta a incidentes de ciberseguridad (CSIRT) y los equipos de respuesta a emergencias o las entidades equivalentes que actúen en su ámbito de actuación y de acuerdo a la legislación vigente, estableciendo modelos de colaboración con otros CSIRT estatales e internacionales. Asimismo, la Agencia ejercerá funciones de alerta temprana y de ayuda en la respuesta ante amenazas, vulnerabilidades, ataques e incidentes de seguridad en el ámbito del sector público vasco.

i) Unibertsitateekin eta ikerketa-organismoekin lankidetza estuagoaren alde lan egitea planteamendu estrategiko bat egiten laguntze aldera, zeinaren helburua izango baita Europar Batasunetik kanpoko zibersegurtasun-produktuen eta -zerbitzuen mendekotasuna murriztea eta Europar Batasunaren barruko hornidurarako kateak indartzea.

i) Trabajar en pro de una cooperación más estrecha con las universidades y los organismos de investigación con el fin de contribuir a un planteamiento estratégico para reducir la dependencia de productos y servicios de ciberseguridad de fuera de la Unión Europea y reforzar las cadenas de suministro de dentro de la Unión Europea.

j) Azpiegitura teknologikoen, informazio-sistemen eta informazioaren teknologien zerbitzuen gaineko ziberintzidenteak eta zibererasoak teknologikoki ikertzea eta aztertzea.

k) Baliabide elektronikoen erabileran zibersegurtasun-maila egokia bermatzea.

l) Zibersegurtasunaren arloko hedapen, sustapen, prestakuntza eta kontzientziazioko jarduerak antolatzea.

m) Zibersegurtasunaren arloko talentua sustatzeko jarduerak antolatu eta zibersegurtasuneko jardueretan parte hartzea, erreferenteak ezagutaraziaz, bereziki nabarmenduz zibersegurtasunaren arloko emakume profesionalak.

n) Zibersegurtasuneko neurri teknikoak proposatzea dauden baliabide informatikoak eta komunikazioak erabiltzerakoan, eta neurri horiei buruzko prestakuntza proposatzea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko langileei eta Agentziako langileei.

o) Laguntza ematea, zibersegurtasunaren arloan, eskumena duen edozein agintariri, bere eginkizun publikoak betetzeko eta, batez ere, legez kanpoko jokabideen aurkako borrokan, barne hartuta zuzeneko esku-hartzea eta proba elektronikoak lortzea.

p) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa koordinatzea dagozkion zibersegurtasun-planak egiteko, baita plan horietan ezarritako helburuak lortzeko ere.

q) Bere zibersegurtasuneko zerbitzu materialak eta teknikoak euskal sektore publikoaren esku jartzea.

j) Investigar y analizar tecnológicamente los ciberincidentes y ciberataques sobre infraestructuras tecnológicas, sistemas de información y servicios de tecnologías de la información.

k) Garantizar un nivel adecuado de ciberseguridad en el uso de medios electrónicos.

l) Organizar actividades de difusión, promoción, formación y concienciación en materia de ciberseguridad.

m) Organizar actividades para promocionar el talento en la ciberseguridad, y participar en actividades de ciberseguridad, dando a conocer referentes, haciendo especial hincapié en las mujeres profesionales de la ciberseguridad.

n) Proponer medidas técnicas de ciberseguridad en la utilización de los recursos informáticos y de las comunicaciones existentes, y proponer la formación en estas medidas del personal de la Administración de la Comunidad Autónoma Vasca y del propio personal de la Agencia.

o) Actuar como apoyo, en materia de ciberseguridad, de cualquier autoridad competente para el ejercicio de sus funciones públicas y, en particular, en las tareas de lucha contra las conductas ilícitas, incluidas la intervención directa y la obtención de pruebas electrónicas.

p) Coordinar al sector público vasco en la elaboración de sus respectivos planes de ciberseguridad, así como en la consecución de los objetivos establecidos en los mismos.

q) Poner sus servicios materiales y técnicos de ciberseguridad a disposición del sector público vasco.

r) Euskal sektore publikoaren koordinazioa bultzatzea zibersegurtasun-planetan zehaztutako helburuak lortzeko beharrezkotzat jotzen den guztian. Horretarako, beharrezkotzat jotzen diren lankidetza-ildoak ezarriko dira.

r) Impulsar la coordinación del sector público vasco en todo lo que se considere necesario para la consecución de los objetivos especificados en los planes de ciberseguridad, estableciendo para ello las líneas de colaboración que se entiendan necesarias.

s) Euskal sektore publikoaren ordezkari ofiziala izatea zibersegurtasunaren arloko nazioarteko, Estatuko eta eskualdeko organismoetan.

s) Ostentar la representación oficial del sector público vasco ante organismos internacionales, estatales y regionales en materia de ciberseguridad.

t) Zibersegurtasunaren eta garapen digital seguruaren arloko trebakuntza laguntzea eta bultzatzea Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen esparruan eta funtsezko sektoreetan, hala nola osasuna, larrialdiak eta segurtasuna, gizarte-zerbitzuak eta esku-hartze soziala, hezkuntza, garraioa, energia eta telekomunikazioak, edota sentikortzat jo daitekeen beste edozein sektoretan.

t) Apoyar e impulsar la capacitación en materia de ciberseguridad y el desarrollo digital seguro en el ámbito empresarial y en los sectores esenciales de la Comunidad Autónoma Vasca, como son el sector sanitario, el sector de emergencias y seguridad, el sector de servicios sociales y de intervención social, el sector educativo, el sector del transporte y el sector de la energía y las telecomunicaciones, o cualquier otro sector que pudiera considerarse sensible.

u) Indarrean dagoen legeriak ematen dion edo espresuki eskuordetzen edo esleitzen zaion beste edozein eskumen

u) Cualesquiera otras competencias que le sean conferidas por la legislación vigente o le sean expresamente delegadas o atribuidas.

Erakundearen jardueraren finantzaketa

Erakundea, bere izaera dela-eta, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren mende dago erabat bere jardueraren garapena eta jarraitutasuna ziurtatzeko. Ildo horretan, Erakundea ustiapenerako diru-laguntzen bidez finantzatzen da, eta garapenerako lankidetzaren eremuan jarduteko programen eta programa horiek kudeatzeko beharrezkoa den egituraren kostua ordaintzeko zenbatekoa jasotzen du.

Financiación de la actividad del Ente

El Ente presenta, dada su naturaleza, una dependencia plena de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco para el desarrollo y continuidad de su actividad, en este sentido el Ente se financia a través de subvenciones a la explotación por un importe tal que cubra el coste de los diferentes programas de actuación en el ámbito de la ciberseguridad, así como de la estructura necesaria para la gestión de los mismos.

Euskal Autonomia Erkidegotik jasotako diru-laguntza horiek aurreko jarduerak finantzatzeko transferentziak dira, eta galdu-irabazien kontuari egozten zaizkio zuzenean, zerrendatutako gastuak ekitaldian bertan sortzen baitira.

Dichas subvenciones recibidas de la Comunidad Autónoma de Euskadi son transferencias para financiar las actividades anteriores y se imputan directamente a la cuenta de pérdidas y ganancias, en tanto en cuanto los gastos relacionados se incurren en el propio ejercicio.

Urteko ekitaldi bakoitzerako aurrekontuaren eta benetan egikaritutakoaren artean desorekak badaude, kontabilitate-galerak sor daitezke, eta, arestian deskribatutako erabateko finantzaketaren eskema kontuan hartuta, Eusko Jaurlaritzaren etorkizuneko ekarpenen bidez konpentsatu beharko dira.

En el caso de que se produjeran desviaciones entre el presupuesto para cada ejercicio anual y lo realmente ejecutado, podrían surgir pérdidas contables que dado el esquema de financiación plena descrita anteriormente habrá de ser compensada con futuras aportaciones del Gobierno Vasco.

2. Aurkezpen-oinarriak

2.1 Erakundeari aplikatu beharreko finantzainformazioaren arau-esparrua

Administratzaileek urteko kontu hauek formulatu dituzte erakundeari aplikagarri zaion finantzainformazioaren arau-esparruarekin bat etorriz. Honako hauetan ezarritakoa da hori:

- Merkataritzako Kodea eta merkataritza-arloko gainerako legeria.
- Kontabilitate Plan Orokorra, 1514/2007 Errege Dekretuak eta haren ondorengo aldaketak, Kontabilitate Plan Orokorra aldatzen duen urtarrilaren 12ko 1/2021 Errege Dekretua barne, eta haren egokitzapen sektorialak.
- Kontabilitate Plan Orokorraren eta haren arau osagarrien garapenean Kontabilitate eta Kontu Ikuskaritzako Institutuak onartutako eta nahitaez bete beharreko arauak.
- Aplikatzekoa den Espainiako gainerako kontabilitate araudian.

2. Bases de presentación

2.1 Marco normativo de información financiera aplicable al Ente

Estas cuentas anuales se han formulado por los Administradores de acuerdo con el marco normativo de información financiera aplicable al Ente, que es el establecido en:

- Código de Comercio y la restante legislación mercantil.
- Plan General de Contabilidad aprobado por el Real Decreto 1514/2007 y sus posteriores modificaciones incluyendo el Real Decreto 1/2021, de 12 de enero, por el que se modifican el Plan General de Contabilidad y sus Adaptaciones sectoriales
- Las normas de obligado cumplimiento aprobadas por el Instituto de Contabilidad y Auditoría de Cuentas en el desarrollo del Plan General de Contabilidad y sus normas complementarias.
- El resto de la normativa contable española que resulte de aplicación.

2.2 Irudi leiala

Erakundearen kontabilitate-erregistroetan oinarrituta prestatu dira urteko kontuak, eta aplikatu beharreko finantza-informazioari buruzko arau-esparruarekin bat etorriz, eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideekin bat etorriz aurkezten dira. Horrenbestez, dagokion ekitaldian izandako Erakundearen ondarearen, finantza-egoeraren, emaitzen eta eskudiru-fluxuen irudi fidela erakusten dute.

2.2 Imagen fiel

Las cuentas anuales han sido obtenidas de los registros contables del Ente y se presentan de acuerdo con el marco normativo de información financiera que resulta de aplicación, y en particular, los principios y criterios contables en él contenidos, de forma que muestran la imagen fiel del patrimonio, de la situación financiera, de los resultados del Ente y de los flujos de efectivo habidos durante el correspondiente ejercicio.

2.3 Nahitaezkoak ez izan arren aplikatu diren kontabilitate-printzipioak

Ez da aplikatu nahitaezkoa ez den kontabilitate-printzipiorik. Horrez gain, administratzaileek, urteko kontu hauek egitean, kontuan hartu dituzte nahitaez aplikatu beharreko kontabilitateko printzipio eta arauak. Printzipio eta arau horiek eragin garrantzitsua dute urteko kontuetan. Ez dago aplikatu ez den nahitaezko kontabilitate-printzipiorik.

2.3 Principios contables no obligatorios aplicados

No se han aplicado principios contables no obligatorios. Adicionalmente, los Administradores han formulado estas cuentas anuales teniendo en consideración la totalidad de los principios y normas contables de aplicación obligatoria que tienen un efecto significativo en dichas cuentas anuales. No existe ningún principio contable que siendo obligatorio, haya dejado de aplicarse.

2.4 Ziurgabetasuna baloratzeko eta zenbatesteko alderdi kritikoak

Urteko kontuak prestatzeko, etorkizunari begira egin beharreko zenbatespen eta judizio jakin batzuk erabili behar ditu Erakundeak. Zenbatespen eta judizio horiek etengabe ebaluatzen dira, eta hainbat faktoretan oinarrituta daude, etorkizuneko gertaeren inguruan inguruabarren arabera zentzuzkoak diruditen aurreikuspenak barnean hartuta.
Zenbatespenak 2024eko ekitaldien amaieran eskuragarri zegoen informaziorik onenean oinarrituta egin badira ere, definizioz nekez izango dira emaitza errealen berdin-berdinak, eta baliteke beste gertaera batzuen ondorioz hurrengo ekitaldietan zenbatespenak aldatu behar izatea. Aldatzekotan, nolanahi ere, era prospektiboan aldatuko lirateke.

2.4 Aspectos relevantes de la valoración y estimación de la incertidumbre.

La preparación de las cuentas anuales exige el uso por parte del Ente de ciertas estimaciones y juicios en relación con el futuro que se evalúan continuamente y se basan en distintos factores, incluidas las expectativas de sucesos futuros que se creen razonables bajo las circunstancias.
A pesar de que las estimaciones se han realizado sobre la mejor información disponible al cierre del ejercicio 2024, por definición, raramente igualarán a los correspondientes resultados reales, por lo que es posible que otros acontecimientos obliguen a modificarlas en los próximos ejercicios, lo que se realizaría en su caso, de forma prospectiva.

2.5 Informazioaren konparazioa

Merkataritza-legeriari jarraikiz, administratzaileek, konparazio-ondorioetarako, 2024ko ekitaldiko zifrez gain aurreko ekitaldikoak aurkeztu dituzte egoera-balantzearen, galdu-irabazien kontuaren, ondare garbiaren aldaketen egoera-orriaren eta diru-fluxuen egoera-orriaren partida bakoitzarekin. Bi ekitaldietako partidak konparagarriak eta homogeneoak dira. Agentziak 2023ko ekainean sortu zen, eta, beraz, ia ez zuen jarduerarik izan ekitaldi horretan.

2.6 Garrantzi-erlatiboa

Memoria honetan finantza-egoeren edo beste gai batzuen partidei buruz xehatu beharreko informazioa zehazterakoan, erakundeak aintzat hartu du 2024ko ekitaldiko kontuekiko garrantzi erlatiboa, Kontabilitate Plan Orokorraren kontzeptu-esparruarekin bat.

3. Emaitzaren aplikazioa

Erakundeak zero emaitza izan du 2023ko eta 2024ko ekitaldian.

4. Erregistro- eta balioespen-arauak

Erakundeak urteko kontu hauek lantzeko erabilitako kontabilitate-irizpide nagusiak honako hauek dira:

4.1 Finantza tresnak

Finantza aktiboak

Cyberzaintzak dituen finantza aktiboak kostu amortizatuko finantza aktiboak dira funtsean, ez dira ondare-tresnak, ezta deribatuak ere, eta haien kobrantzak zenbateko finkokoak edo determinagarriak dira. Aktibo korrienteetan barne hartzen dira, balantzearen dataz geroztik 12 hilabetetik gorako muga-egunak dituztenean salbu, orduan aktibo ez-korriente bezala sailkatzen baitira.

2.5 Comparación de información

De acuerdo con la legislación mercantil, los Administradores presentan, a efectos comparativos, con cada una de las partidas del Balance de Situación, de la Cuenta de Pérdidas y Ganancias, del Estado de Cambios en el Patrimonio Neto y del Estado de Flujos de Efectivo, además de las cifras del ejercicio 2024 las correspondientes al ejercicio anterior.
El ente se creó en Junio de 2023, por lo que apenas tuvo actividad en dicho ejercicio.

2.6 Importancia relativa

Al determinar la información a desglosar en la presente memoria sobre las diferentes partidas de los estados financieros u otros asuntos, el Ente, de acuerdo con el Marco Conceptual del Plan General de Contabilidad, ha tenido en cuenta la importancia relativa en relación con las cuentas anuales del ejercicio 2024.

3. Aplicación del resultado

El Ente ha tenido Resultado cero en el ejercicio 2.023 y 2024.

4. Normas de registro y valoración

Los principales criterios contables utilizados por el Ente en la elaboración de estas cuentas anuales son los siguientes:

4.1 Instrumentos financieros

Activos financieros

Los activos financieros que posee Cyberzaintza son básicamente activos a coste amortizado, no son instrumentos de patrimonio ni derivados y cuyos cobros son de cuantía fija o determinable. Se incluyen en activos corrientes, excepto para vencimientos superiores a 12 meses desde la fecha del balance que se clasifican como activos no corrientes.

Finantza pasiboak

Kostu amortizatuko finantza-pasiboak dira Erakundeak ordaindu behar dituen eta enpresaren trafiko-eragiketengatiko ondasun eta zerbitzuen erosketan sortu diren zorrak eta partidak, baita merkataritza-jatorririk izan gabe finantza-tresna deribatutzat hartu ezin direnak ere.

Kostu amortizatuko finantza-pasiboak jasotako (eta zuzenean eslei daitezkeen transakzioaren kostuekin doitutako) kontraprestazioaren arrazoizko balioan balioesten dira hasiera batean. Ondoren, pasibo horiek beren kostu amortizatuaren arabera balioesten dira. Aurrekoa kontuan izanik ere, gehienez ere urtebeteko muga-eguna duten eta hasiera batean balio nominalaren arabera balioesten diren zorrak zenbateko horren arabera balioesten dira oraindik, administratzaileen ustez fluxuak ez eguneratzearen ondorioa ez baita esanguratsua.

Erakundeak finantza-pasiboei baja ematen die haiek sortu dituzten obligazioak desagertzen direnean.

Pasivos financieros

Son pasivos financieros a coste amortizado aquellos débitos y partidas a pagar que tiene el Ente y que se han originado en la compra de bienes y servicios por operaciones de tráfico de la empresa, o también aquellos que, sin tener un origen comercial, no pueden ser considerados como instrumentos financieros derivados.

Los pasivos financieros a coste amortizado se valoran inicialmente al valor razonable de la contraprestación recibida, ajustada por los costes de la transacción directamente atribuibles. Con posterioridad, dichos pasivos se valoran de acuerdo con su coste amortizado. No obstante, lo anterior, los débitos con vencimiento no superior a un año que se valoran inicialmente por su valor nominal continúan valorándose por dicho importe, ya que los Administradores consideran que el efecto de no actualizar los flujos no es significativo.

El Ente da de baja los pasivos financieros cuando se extinguen las obligaciones que los han generado.

4.2 Aktiboak eta pasiboak

Ordaindu beharreko zorrak eta partidak

Emandako diru-laguntzen, Gizarte Segurantzaren erakundeekiko kreditu edo zorren edota zerga-aktibo eta zerga-pasibo korriente zein ez-korrienteen ondorioz Erakundeak dituen eskubide eta betebeharretatik sortu diren administrazio publikoekiko saldo zordun eta hartzekodunek kobratzeko eskubidea edo ordaintzeko betebeharra badakarte ere, ez dira kontratu-harreman baten ondorioz sortzen. Aitzitik, administrazio publikoen lege-eskakizun batean edo sustapen-jardueretan dute jatorria, eta, beraz, ez dira finantza-aktibotzat edo finantza-pasibotzat hartzen.

4.2 Activos y Pasivos

Débitos y partidas a pagar

Los saldos deudores y acreedores con las Administraciones Públicas procedentes de derechos y obligaciones para el Ente derivados de subvenciones concedidas, créditos o débitos con Organismos de la Seguridad Social o activos y pasivos fiscales tanto corrientes como no corrientes, si bien suponen un derecho de cobro o una obligación de pago, no derivan una relación contractual, sino que tienen su origen en un requerimiento legal o en actividades de fomento por parte de las Administraciones Públicas, por lo que no se consideran activos o pasivos financieros.

4.3 Mozkinen gaineko zerga

Cyberzaintza Erakundeak Gasteizen duenez zerga-egoitza, Sozietateen gaineko Zergaren (SZ) mende egongo da esklusiboki, SZri buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak Araban ezartzen duen moduan, 2 (Aplikazio-eremu subjektiboa), baldin eta aurreko ekitaldian 10 milioi euro baino gutxiagoko eragiketa-bolumena izan badu.

Alde horretatik, Aipatutako Foru Arauaren 12tik, ez da behar bezain esplizitua Cyberzaintza salbuesteko aukerari dagokionez, 1. puntuak adierazten baitu zergatik salbuetsita egongo direla:

"a) Lurralde-administrazio publikoak, bai eta haien organismo autonomoak eta horien antzeko izaera duten zuzenbide publikoko erakunde edo organismoak ere."

Hala ere, irabazi-asmorik gabeko erakunde eta erakundeei dagokien salbuespen partzialaren onuradun izan daitekeela aurreikus daiteke, baldin eta irabazi-asmorik gabeko erakundeen eta mezenasgorako pizgarri fiskalen araubide fiskalari buruzko Foru Arauan ezarritako araubide fiskala baliatzeko baldintzak betetzen ez badituzte.

Adierazi behar da, halaber, Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duen eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio eta partzuergoei aplikatu beharreko aurrekontu-araubidea arautzen duen maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuaren arabera,

4.3 Impuestos sobre beneficios

Cyberzaintza tiene su domicilio fiscal en Vitoria-Gasteiz, de forma exclusiva, estará sometido al Impuesto de Sociedades (IS) en los términos que establezca la NF 37/2013, de 13 de diciembre, del IS en Álava, conforme al art. 2 (Ámbito de aplicación subjetivo), siempre que su volumen de operaciones, en el ejercicio anterior, no hubiera excedido de 10 millones de €.

En este sentido, el art. 12 de la NF mencionada, no es lo suficientemente explícito en cuanto a la exención de la que se podría beneficiar Cyberzaintza, ya que el punto 1 indica que estarán exentas del impuesto:

"a) Las Administraciones públicas territoriales, así como sus organismos autónomos y entidades u organismos de derecho público de carácter análogo a éstos."

Si bien, cabe presuponer que podría beneficiarse de la exención parcial referida a las entidades e instituciones sin ánimo de lucro que no reúnan los requisitos para disfrutar del régimen fiscal establecido en la Norma Foral de Régimen Fiscal de las Entidades sin fines lucrativos e Incentivos Fiscales al Mecenazgo, en la que, por otra parte, podría llegar a encuadrarse si solicitase su inclusión.

Cabe anotar también que, el art. 21 del Decreto Legislativo 1/2011, de 24 de mayo, por el que se aprueba el texto refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de régimen presupuestario de Euskadi y se regula el régimen presupuestario aplicable a las fundaciones y consorcios del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi, indica que,

«Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren aurrekontuetan jasota dauden eta Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritzako erakunde autonomoentzat, zuzenbide pribatuko erakunde publikoentzat, sozietate publikoentzat eta sektore publikoko fundazioentzat diren transferentzia arruntei dagozkien ordainketa-kredituek, ezarritako mugen barruan, beren galerak finantzatzeko diru-laguntzaren izaera izango dute hartzaileentzat». Ekitaldi-itxieran, artikulu honetan aipatzen diren funtsak soberan jasotzearen ondorioz irabaziak dituzten erakundeek Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko dizkiote, eta, horrela, diru-laguntzaren behin betiko zenbatekoa finkatu.

"Los créditos de pago correspondientes a transferencias corrientes con destino a Organismos Autónomos Mercantiles, Entes Públicos de derecho privado, Sociedades Públicas y Fundaciones del sector público de la Comunidad Autónoma contenidos en los Presupuestos de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi y dentro de los límites establecidos, tendrán para los perceptores la naturaleza de subvención para financiar sus pérdidas. Al cierre del ejercicio, aquellas entidades que tuvieran beneficios, obtenidos como consecuencia de haber recibido fondos a los que se refiere el presente artículo en exceso, deberán reintegrarlos a la Tesorería General del País Vasco, quedando así fijado el importe definitivo de la subvención."

Hortik ondorioztatzen da, argi eta garbi, Cyberzaintzak ez duela irabazi-asmorik; izan ere, nahiz eta bere kudeaketatik etekin ekonomikoa lortu, jasotako etekinaren pareko diru-laguntza horri dagokion zatia itzuli beharko luke.

De lo que se deduce claramente que Cyberzaintzak carece de ánimo de lucro ya que, tendría que reintegrar la parte correspondiente de esa subvención equiparable al beneficio obtenido.

Oraingoz, ez da aurreikusten 2023ren eta 2024ren aitorpenik ekitaldiari dagokionez.

Erakundeak irekita ditu, oro har, azken lau ekitaldiak zerga-ikuskaritzara, aplikagarri zaizkion zerga guztietarako..

Por el momento, no se prevé declaración del IS respecto de los ejercicios 2023 y 2024

El Ente tiene abiertos a inspección fiscal, con carácter general, los cuatro últimos ejercicios para todos los impuestos que le son aplicables.

4.4 Lotutako aldeen arteko transakzioak

Oro har, lotutako erakundeen arteko eragiketak beren arrazoizko balioaren arabera kontabilizatzen dira hasiera batean. Kasuan kasu, adostutako balioa eta arrazoizko balioa berdinak ez badira, eragiketaren errealitate ekonomikoa kontuan izanda erregistratzen da aldea. Ondorengo balioespena dagozkion arauetan aurreikusitakoaren arabera egiten da.

4.4 Transacciones entre partes vinculadas

Con carácter general, las operaciones entre entidades vinculadas se contabilizan en el momento inicial por su valor razonable. En su caso, si el precio acordado difiere de su valor razonable, la diferencia se registra atendiendo a la realidad económica de la operación.

La valoración posterior se realiza conforme con lo previsto en las correspondientes normas.

4.5 Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk

Epigrafe honetan sartzen dira kutxako, bankuko kontu korronteetako eta gordailuetako dirua.

4.6 Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak

Itzulgarriak diren diru-laguntzak pasibo gisa erregistratzen dira, eta beste pasibo finantzario batzuk, itzuli beharrik gabekotzat hartzeko baldintzak bete arte, eta itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak, berriz, ondare garbiari zuzenean egotzitako diru-sarrera gisa erregistratzen dira eta diru-sarrera gisa jasotzen dira oinarri sistematiko eta arrazional baten gainean, diru- laguntzaren ondoriozko gastuekin erlazionatuta. Bazkideetatik jasotako itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak fondo propioetan erregistratzen dira zuzenean. Horretarako, diru-laguntza bat itzuli beharrik gabekotzat hartzen da diru-laguntza emateko erabaki indibidualizatua dagoenean, hori emateko ezarritako baldintzak bete direnean eta kobratuko dela zalantzan jartzeko arrazoirik ez dagoenean.

Kapital-transferentziak jasotzen hastean, Erakundeak aktibo gisa jasotako ondasunak edo zerbitzuak erregistratzen ditu alde batetik, eta ondare garbian izandako gehikuntza bestetik. Kapital diru-laguntzak, erregistratzen diren egunetik aurrera, haien bidez finantzatutako aktiboek dagokion aldian jasandako balio-galeraren proportzioan egozten zaizkie emaitzei.

Moneta-izaerako diru-laguntzak emandako zenbatekoaren arrazoizko balioaren arabera balioesten dira, eta moneta-izaera ez dutenak, aldiz, jasotako ondasunaren

4.5 Efectivo y otros activos líquidos equivalentes

Este epígrafe incluye el efectivo en caja, las cuentas corrientes bancarias y los depósitos.

4.6 Subvenciones donaciones y legados

Las subvenciones que tengan carácter de reintegrables se registran como pasivos en el epígrafe deudas a corto plazo y otros pasivos financieros hasta cumplir las condiciones para considerarse no reintegrables, mientras que las subvenciones no reintegrables se registran como ingresos directamente imputados al patrimonio neto y se reconocen como ingresos sobre una base sistemática y racional de forma correlacionada con los gastos derivados de la subvención. Las subvenciones no reintegrables recibidas de los socios se registran directamente en fondos propios. A estos efectos, una subvención se considera no reintegrable cuando existe un acuerdo individualizado de concesión de la subvención, se han cumplido todas las condiciones establecidas para su concesión y no existen dudas razonables de que se cobrará.

En las subvenciones de capital, en el reconocimiento inicial el Ente registra, por un lado, los bienes o servicios recibidos como un activo y, por otro, el correspondiente incremento en el patrimonio neto. A partir de la fecha de su registro, las subvenciones de capital se imputan a resultados en proporción a la depreciación experimentada durante el período, por los activos financiados con las mismas.
Las subvenciones de carácter monetario se valoran por el valor razonable del importe concedido y las subvenciones no monetarias por el valor razonable del bien

arrazoizko balioaren arabera (bi balio horiek jaso diren uneari lotuta daude).

Sortu ez diren gastu espezifikoei lotutako itzuli beharrik gabeko ustiapeneko diru-laguntzak pasiboan jasotzen dira dagozkion gastuak sortzen diren arte (une horretan jasotzen dira galdu-irabazien kontuan), baita ematen diren ekitaldian ustiapen-defizita konpentsatzeko ematen direnak ere,
ondorengo ekitaldietako ustiapen-defizita konpentsatzera bideratzen direnean salbu, kasu horretan ekitaldi horietan egozten baitira.

4.6.1 Ustiapeneko bestelako diru-sarrerak: Jasotako diru-laguntzen ondoriozko diru-sarrerak

Memoriaren 1. oharrean adierazten denez, Erakundeak, halaber, garapenari eta lankidetzari lotutako interes publiko edo orokorreko jarduera garatzeko jarduera eta gastu espezifikoak finantzatzeko transferentziak jasotzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorretik, eta galdu-irabazien kontuari egozten zaizkio adierazitako gastuak egiten diren unean.

4.7 Aktiboen eta pasiboen sailkapena: korrienteak eta ez-korrienteak

Aktiboak eta pasiboak korrienteetan eta ez-korrienteetan sailkatuta aurkezten dira balantzean. Ondorio hauetarako, aktiboak eta pasiboak korriente gisa sailkatzen dira Erakundearen ustiapen-ziklo normalari lotuta daudenean eta, espero denaren arabera, ziklo horren barruan kontsumitu, egin edo likidatuko direnean, edota erabilera urtebetetik gorako aldi baterako murriztuta ez duten eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk direnean.

recibido, referidos ambos valores al momento de su reconocimiento.

